



Temporada 2022/2023

## 10. ZIRKULARRA

### **2022-2023KO ESKOLA FUTBOLEKO BAIMENAK EMATEKO IRIZPIDEAK**

Zirkular honi erantsi zaio Eskola Futbolaren Jarraipen Batzordeak 2022ko abuztuaren 4an egindako bileraren akta. Bilera horretan, 2022-23 denboraldian eskola adinean dauden ikasleen futbol modalitaterako baimenak emateko irizpideak jasotzen dira.

**Donostia, 2022ko abuztua**

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA  
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL

  
Iñigo Letamendi Artetxe  
Idazkari Nagusia-Secretario General



## 2022-2023 IKASTURTEA

### FUTBOLAREN JARRAIPIEN-BATZORDEAK ADOSTUTAKO ESKOLA-ADINEKO HAURREI BAIMENAK EMATEKO IRIZPIDEAK

(2022ko abuztuaren 4a)

#### 1. MODALITATEAREN BEREZITASUNAK

Ohorezko Kadete maila	G	25	Federatua	GFF <sup>(1)</sup>
Gorengo Kadete maila	G	25	Federatua	GFF <sup>(1)</sup>
Kadeteen 1. maila	G	25	Federatua	GFF <sup>(1)</sup>
Ohorezko Kadete maila (3 urte)	E	25	Federatua	GFF <sup>(1)</sup>
Kadeteen 1. maila (3 urte)	E	25	Federatua	GFF <sup>(1)</sup>
Ohorezko Infantil maila	G	20	Errendimenduan hastea: 32 talde (GFAtik gonbidatuak)	GFF <sup>(1)</sup>
Infantil Txiki (bakarrik 1. urtekoak)	G	20	Errendimenduan hastea (GFAtik gonbidatuak)	GFF <sup>(1)</sup>
Infantilen 1. maila	G	22	Parte hartzea	EKB <sup>(2)</sup>
Ohorezko F8 Infantil maila (udaberriko torneoa F11)	E	16 (+2)	Errendimenduan hastea. 16 talde (GFAtik gonbidatuak)	GFF <sup>(1)</sup>
Infantil F8 maila	E	16 (+3)	Parte hartzea	EKB <sup>(2)</sup>
2. urteko alebinak	X	16	Errendimenduan hastea * Gehienez, 24 talde. (GFAtik gonbidatuak)	EKB <sup>(2)</sup>
2. urteko alebin eskolak	X	16	Hastapeneko unitate baimenduak: Hobekuntza * (GFAtik gonbidatuak)	Lizentziarik gabe
Benjamin eta alebin eskolak	X	Libre	Hastapeneko unitate baimenduak: Oinarrizkoa *	Lizentziarik gabe
Areto futbola Infantila		8-15	Parte hartzea	EKB <sup>(2)</sup>
Areto futbola Alebina		8-15	Parte hartzea	EKB <sup>(2)</sup>
Areto futbola Benjamin		Libre		

\* Multikirolean parte hartzen dutenentzako bakarrik.

1. Gipuzkoako Futbol Federazioa

2. Eskualdeko Kirol Bulegoa



## 2. BAIMEN BEREZIAK

### 2.1. Irizpide orokorrak

- Oro har, ikasle bakoitzak bere adinari dagokion kategorian parte hartu beharko du. **Araua zorrotz aplikatuko da benjamin eta alebin kategorietan.**
- Lehen urteko infantil bati ez zaio kadete kategoriako talde batean parte hartzeko baimenik emango. Infantil kategorian (areto futbola) lehiaketa bakarria badago, kasuan kasu aztertuko dira.
- Ikasturtean zeharreko txapelketak: benjamin kategoriatik aurrera baimena ematen da txapelketetan parte hartzeko, **betiere opor garaian (Gabonak, Aste Santua edo uda) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA) aurrez baimena emanda.** Ikasturteko zubi eta jaiegunetarako ez da baimenik ematen txapelketetan parte hartzeko.
- Salbuespenezko kasuak banaka aztertuko dira. Zalantzarik izanez gero, GFAk Gipuzkoako Futbol Federazioarekin kontsultatuko du.
- Benjamin eta alebin kategorietan, futbol-eskola eta klubek **Aldundiak eta Federazioak egutegian ezarritako partida egunetan soilik parte hartu ahal izango dute.** Gainerako igandeak Eskola Kiroleko programaren barruan sartzen diren parte-hartze libreko banakako modalitateetarako gordeko dira.

### 2.2. Baimen eskaerak

- Dokumentu honetan jasotzen diren egoerak baimentzeko, GFAari baimena eskatu beharko zaio telematikoki [esteka](#) honen bidez.
- Baimen motak eta dagokion atala:
  - Lizentzia Federatua izapidetzea: **3.1 Izapidetzea federazio lizentzia**
  - Torneoak eta campusak antolatzea: **1.1 Antolatzea, Gipuzkoan, eskola kiroleko programaren barruan sartu gabe dauden jarduerak edo txapelketak**
  - Egoera bereziko baimenak parte hartzeko ibilbideko taldeentzat: **Egoera bereziko zenbait jarduera.**

Lizentzia federatuak eskuratzeko (3.1) eta egoera bereziko zenbait jarduerari dagozkien baimenak **izendunak** izango dira.

Eskaera tramitatu ahal izateko, entitate eskatzaileak **xehetasunez zehaztu beharko du** zergatik egiten duen eskaera, baimena justifikatzeko **argudio teknikoak emanda betiere adingabeen ikaskuntza prozesua eta interesak lehenetsita.**



## **2.3. Irizpide espezifikoak**

### **A) NESKEN TALDEEN FUTBOLA**

- **F8-ko Infantilak – Talde kide kopurua** (gehienez 16):
  - Baimenduta dago ezarritako kide kopurua baino kide 1 edo 2 gehiago izatea.  
Baimen mota: **Egoera bereziko zenbait jarduera.**
  
- **F8-ko Ohorezko Infantilak – Talde kide kopurua** (gehienez 16):
  - Talde kide kopurua jokalaria 1 edo 2 gehiagorekin gainditzea baimenduko da. Lehenetsua emango zaio infantilak dagokien kategorian jokatzeari.  
Baimen mota: **Egoera bereziko zenbait jarduera.**
  
- **2.urteko alebinek infantil taldean jokatzeko:**
  - Parte hartzeko F8-ko Infantil taldea osatzeko (11 jokalaria) behar adina jokalaria alebinak baimenduko dira, betiere udalerriko klub bakarria baldin bada.  
Kontuan hartuta baimenak alebin taldean eragina izan dezakeela, eskaerak banaka aztertuko dira.
  
- **Infantilek kadete taldean jokatzeko:**
  - **INF-KAD-KAD:** 1. edo 2. urteko infantilak kadete taldea osatzeko:  
kadete kategorian 3 urte desberdinetako jokalaria biltzen direnez, kasua sakon aztertuko da **haurren interesak zaintzeko, beren esperientzian eragina izan dezakeelako garapen biologikoaren eta kirol mailaren arabera.**  
Hartara, oro har, baimena emango da **soilik haurrak baldin baditu kadete kategorian ongi moldatzeko eta ikaskuntza esperientzia positiboa izateko ezaugarriak**, betiere **udalerriko talde bakarria bada.**  
Baimentzen dira **kadete taldeko gutxieneko jokalaria kopurua (18) osatzeko hainbeste kide, gehienez ere 4 jokalaria.**  
Baimen mota: 3.1.  
Salbuespenezko beste kasu batzuk banaka aztertuko dira.
  
  - **INF-INF-KAD Ohorezko infantilak Parte hartzeko Kadete eta Ohorezko Kadete taldean parte hartzeko.**  
Baimentzen dira **kadete taldeko gutxieneko jokalaria kopurua (18) osatzeko hainbeste kide, gehienez ere 4 jokalaria.** Helburua da lehenetsua infantil kategorian lehiatzea eta kadete mailan jokalaria falta badira aukera izatea maila horretan jokalariren bat izatea. **Baimena baldintzatua izango da:** asteburu bakoitzeko partida bakarria izatea.
  
- **Kadeteek infantil taldean jokatzeko:**
  - Kadete bati baimena emango zaio infantileko parte-hartzeko talde batean jokatzeko, **betiere taldeak edo jokalaria ez badu Gipuzkoako Txapelketako azken faseetan parte hartzen.**  
Baimen mota: egoera bereziko zenbait jarduera.



## B) MUTILEN TALDEEN FUTBOLA

### • Kide kopurua

- Parte-hartzeko lehen mailako Infantilak (22 gehienez): gehieneko jokalarikopurua, **gehienez, 3 jokalariz gainditzea baimenduko da**, baldin eta klubak dituen errendimenduko infantil taldeek (**Infantil Txiki eta Ohorezko Infantilak**) gehieneko jokalarikopurua badute (20).  
Salbuespenezko beste kasu batzuk edo udalerrian talde bakarra dagoen bestelako egoerak banaka aztertuko dira.  
Baimen mota: egoera bereziko zenbait jarduera.
- Errendimenduko infantil taldeak (Txiki eta Ohorezkoak): ez da baimentzen gehieneko jokalarikopurua gainditzea (20).
- Errendimenduan hasteko eta Hobekuntzako taldeak (alebinnen 2. urtea)
  - a) Errendimenduan hasteko taldeak: **gehienez 16 jokalarik** (edo izena emanak daudenak, gutxienekoa errespetatuz). **Ez dago aukerarik ikasturtean zehar altak eta bajak egiteko.**
  - b) Aurretiko faseko taldeak: **gehienez 16 jokalarik** (edo izena emanak daudenak, gutxienekoa errespetatuz). **Ez dago aukerarik ikasturtean zehar altak eta bajak egiteko.**
  - c) Hobekuntzako taldeak, aurretiko faseko iritsitakoak: **gehienez 16 jokalarik** (edo izena emanak daudenak, gutxienekoa errespetatuz). **Ez dago aukerarik ikasturtean zehar altak eta bajak egiteko.**
  - d) Hobekuntzako taldea, hasieratik izan direnak: **gehienez 16 jokalarik**, **malgutasunarekin udalerrian talde bakarra dagoen kasuetan**. **Ez dago aukerarik ikasturtean zehar altak eta bajak egiteko.**
- Oinarrizko taldeak (Kirol eskolak- Benjaminak eta alebinak): Librea (ez dago kide mugarik).  
Ikasturtean zehar hurrei altan eman dakieke.

Parte hartzaileen izen emateak hilabeteko epean egingo dira kirol eskolaren baimena lortzen denetik. Epez kanpoko altak eta bajak egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren baimena beharko da. Egoera bakoitza banaka aztertuko da.

### • 2. urteko infantilek kadete taldeetan jokatzeko. Lehentasun ordena honetan aplikatu beharreko irizpideak:

- **INFANTIL-INFANTIL-KADETE** (lizentzia bikoitza ematea):
  - a) **2. urteko ohorezko infantilek lehen mailako kadete taldeetan jokatzeko**: Ohorezko infantileko haur batek parte hartu dezake kadete kategorian (lizentzia federatua) lehen mailako kadete talde bat osatzeko, **betiere kategoria desberdinetako bi partidetan parte hartzen ez badu asteburu berean**. GFFak eramaten du kontrola. **Gehienez, infantil mailako 6 jokalarik baimentzen dira edo 18 jokalariko gutxienekoa osatu artekoak**. Baimen mota: 3.1



- b) **Ohorezko infantileko 2. urtekoek Ohorezko kadete taldeetan jokatzeko:** Salbuespen moduan, irizpide teknikoagatik (haurren kirol ezaugarriak), beti ere ohorezko kadete taldean 18 jokalarri baino gutxiago badaude.
- o **INFANTIL-KADETE-KADETE:**
- a) Salbuespeneko kasu batzuetan, kadete talde bat osatzearren, INF-KAD-KAD lizentzia baimentzen da, betiere **denboraldi hasieran eskatzen bada** kadete taldeko kiderik ez kaltetzeko. **Baimendutako jokalarriak denboraldi osoan jokatuko du soilik kadete taldean.** Gutxieneko 18 jokalarri osatzeko beharrezko adina jokalarri baimenduko da. **Kadete taldean, jokalarri kopuru erdia gehi batek kadete kategoriakoak izan beharko dute.** Baimen baldintzatua: denboraldian zehar kadeteren bat sartzen bada taldean, baimendutako jokalarri infantilak bere kategoriari dagokion taldera itzuli beharko du. GFFak eramatan du kontrola. Baimen-mota: 3.1
- b) Parte-hartzeko infantilak **ezin du bateratu kadete talde federatu bateko parte-hartzea.** Kasu horretan, **INF-KAD-KAD lizentzia** baimenduko da, baina ez INF-INF-KAD lizentzia. Jokalarri kopuruari dagokionez, a) atalean ezarritako irizpideak jarraituko dira.
- c) Salbuespen gisa, **klubak Ohorezko infantiletan talderik ez badu, eta ez bada lortzen jokalarri horiek infantiletako Lehenengo mailako talde batean kokatzea, gehienez ere 4 jokalarri edo 18 jokalarriko gutxienera iristeko** beharrezkoei INF-KAD-KAD lizentzia baimenduko zaie Infantileko Lehenengo mailako taldeetako **2. urteko infantilei.**

Jokalarrien batek **iraupen luze**ko lesioen bat jasaten bada altak eta bajak egiteko epe kanpo, taldean jokalarri bat sartzea baimenduko da, lesionatutako jokalarria ordeztzeko. Baimena lesionatutako jokalarria itzuli arte baliozkoa izango da.

Horretarako, taldeak baimen eskaerarekin batera bajaren iraupenaren aurreikuspena jasotzen duen txosten mediku bat aurkeztu beharko du. **Egoera honetako baimenak jokalarriak lesioa jasaten duenetik gehienez ere bi asteko epean egin beharko dira.** Eskaera hori onartuko da, betiere **bajaren aurreikuspena sei hilabetetik gorakoa bada.**

Eskola kiroleko mahaiaren erabakia, Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean. Kadete taldea osatzeko gutxieneko jokalarri kopurua 18koa izango zela erabaki zen. 2022-23 ikasturtean kopuru hori mantenduko da talde bakoitzeko kideen gutxieneko kopurua zehazteko.



## C) ARETO FUTBOLA

- **INFANTIL-INFANTIL-KADETE**: 2. urteko infantil bat kadete taldean lehia daiteke (lizentzia federatua), betiere ez badu kategoria desberdinetako bi partidatan parte hartzen asteburu berean. Erdiak gehi batek kadete adinekoak izan behar dute. Kontrola Federazioak eramango du. Baimentzen dira taldea osatu arte gutxienez 15 jokalarirekin. Baimen-mota: 3.1
- **INFANTIL-KADETE-KADETE**: kasu bakoitza banaka aztertuko da.
- Benjamin kategoriako areto futboleko eskolei baimena ematen zaie esparru geografikoa gainditzeko, betiere errespetatzen bada Aldundiak kirol eskolen arteko partidatarako proposatutako egutegia. Arrazoiak: areto futboleko eskola gutxi daude (4-5 talde benjaminetan eta 4-5 alebinetan). Baimentzen da «topaketak» antolatzea kontzentrazio gisa eta kategoriak; hartara, benjaminek lurralde esparruan parte hartuko dute.
- 2021-22an ez zen Kadete liga osatzeko talde nahikorik egon. Kasu horretan, kadete taldeari baimena ematen zaio Infantil ligan parte hartzeko. **Baldintzak**: Hurrek dagokiena baino beheagoko kategoria bateko jardueretan parte hartzeak suposatzen du dena delako taldeak ezingo duela Gipuzkoako Txapelketako azken faseetan parte hartu.